

POESIA

Literatura (biz)hitzara

BULKADA

Jon Benito
Susa, 2010
111 orrialde. 15 euro

Ainara MAIA

Poemak ez diren poemak irakurri ditut, baina ez neukan zerbait aurkitu nahian galdu egin naiz, eta bihotz-bulkada batez letrarik gabe nire hitzetan barneratu naiz.

Poetak hasieratik bukaeraino bere baitarako atea irekitzeko ausardia izan du, eta liburuan bere altxor sekretua topa dezakegu, urrezko aroa pasaturik ihesera emana, eta bere barneko atea memoria ekarri dio. Lasaitasunez, minez, berotasunez, heriminez, nekeaz, amorruez, haserreaz, desilusioz. Bizitzaz beterik, inozentziak eta idazteko plazeraz idatzi du poemarik gabeko liburu hau Jon Benitok, poesiak zauriturik, eta guri erantzunik gabeko galderak bota dizkigu. Beharbada bihar erantzungo ditut galdera horiek.

Biluztearen beldur hitzez jantzirik etorri zait poeta, ez baitu gehiegi biluztu behar izan bere bizitza inuzenteki azaltzeko, eta atsedetik gabeko inbentarioa egin dit. Poetaren historiaren lekuko bat duzu poema-liburu bat ez den liburu hau; edo ez bederen hori bakarrik, baina liburu bat besterik ez da apalean edo esku batzuetan.

Post-it batzuetan idatzitako oharak dirudite hauek, eta ohar horietan bera izan zena idatzirik utzi nahi izan du gaurko Jon Benitok. Idatzi ez duena beretzako gordez, jakinik hori dela poesia: plazeraz idaztea



eta idatzitakoa ezabatzea. Ezabatu ondoren gelditu den hori baita poesia; hori aurkituko duzu liburu ireki eta berehala.

Poema-liburu bat baino gehiago, olerkariaren bizitza da, eta bizitzaren bulkada horrekin batera, amaren sabeletik kanpora atera zenetik gertatu diren gauzak kontatzen ditu poetak. Gerta zitekeena gertatu zen, eta 1981etik 2009ra bitarteko une historikoak kontatzen ditu, eta bitartean bere lana, aisialdia, zerbezak, eritasunak, atsedena, bozkarioa, haserre, amodioak ere bai. Izan ere, bere historia ez baita berea bakarrik. Denona da historia. Hala ere, bere historia berekin amaitzen da, eta bere poema-liburu ere azken poemarekin amaitzen du.

Hori dena eta gehiago idazten du libre Jon Benitok, eta esan beharreko gutzia be-

re barnetik idazten du, asko pentsatu gabe zer izan daitekeen argitaragarri eta zer ez; bihotzak buruari erotasuna eskaini diola dirudi, eta hatz-puntek libreki tekleatu dute idazlearen NAN edo kontu korrante zenbakia. Idazleak ez du ate itxirik bere barrutik kanpora, eta buru bihoztu batek ez daki zer den prosa eta zer poesia. Beharbada horregatik ez nuke hau poema-liburutzat hartuko; autobiografia poetiko bat ote? Beharbada idazleak hartaz ez ahazteko behar du errimarik gabeko lerroak etenik gabe idatzi?

Nik ere erantzunik gabeko galdera asko dut bulkada batez liburu irakurri ondoren. Batzuetan limoia bezain samin sartu zait ene barnera, eta nire zaurietan oroitarazi dit samintasun horrek oraindik itxi gabeko sakoneko bihotzeko zauriak ditudala. Zauriaren arrastoa gelditzen zait, eta min egiten dit oraindik konplitu gabeko lagun minaren promesak. Izan ere, zenbaitzuek adiskidetasuna bazterketatzat hartzen dute, eta nola jokatu ezer gertatu izan ez balitz bezala? Nola ez damutu? Nola lapurtu zidaten bihotza?

Bihotzak ulertzen ez dituen gauza asko gertatzen zaizkio poetari, niri eta gu guztioi, eta poetak elkar ulertzeko protokolo bat ere proposatzen digu. Hala ere, ongi ulertzen ez diren hitzak azkeneraino zaindu beharren garrantzia azpimarratu digu: maitasuna, errespetua, mina. Ulerbera eta barkabera izaten saiatu naiz min eman zidan kapulloarekin, ene bihotzeko laguna delako azken batean. Negu luze eta gogor honetan nik ere asko sentitzen dut, zain nazazu, arren. Beti maitasunez, bihotzez.



Víctor MORENO

Rocambolesco

El ridículo que se hace cuando justificamos la bondad de una novela es proverbial.

Sobre todo, cuando la novela es buena. En estas ocasiones, resulta difícil escaparse del tópico.

Si la novela es mala, el crítico se pondrá serio, añadiendo que la estructura no está bien construida, el punto de vista no es el apropiado y la coherencia hace agua.

Es mejor, pues, que el crítico despelleje tu novela a que te prodigue veinte adjetivos, que, además, se los dice a todas. Si te censura, se esforzará en justificar su rechazo, y, al hacerlo, sabremos más de él que del autor a quien destroza.

La alabanza requiere pocos análisis. A veces, el autor es tan tonto que se la cree, sin reparar en que aquella no lleva aparejada ningún juicio literario.

El caso de alabanza más idiota con el que me he topado es aquel en que Guelbenzu afirmaba de una escritora que «la galería de tipos que aparecen en su novela es original, rica y sugestiva».

El crítico lo decía porque «la formación de la autora es arqueóloga de profesión, lo que se advierte en la paciencia y justeza con que están ensambladas todas las piezas». Como se ve, una justificación muy literaria.

Me pregunto si la escritora, en lugar de arqueóloga, hubiera sido vinatera o costurera, ¿el resultado habría sido distinto? Para Guelbenzu, sí.

Ahora bien, ¿tener un oficio determinado propicia un tipo de escritura?

Si la respuesta es positiva, ningún crítico debería obviar en sus reseñas el dato del oficio del escritor. Explicaría, mejor que sus conocimientos, la literatura de los escritores.

Al fin y al cabo, un escritor sin oficio es imposible que escriba mejor que uno que es escritor-fontanero o carpintero. Y si es ingeniero, como era Benet, ni te cuento.

La vagancia nunca fue creativa.

KALERATU BERRIAK

ERASMUS ALA
ORGASMUS?

ORGASMUS
Hainbat egile
Txalaparta, 2010
235 orrialde. 17 euro

“Erasmus belaunaldia” etiketari erantzun umoretsua eman asmoz bildu dira hainbat emakumezko idazle “Orgasmus” lanean. Erotismoari lotutako hamar ipuin biltzen ditu lan honek, bakoitza munduko txoko batean kokatua. Katixa Agirre, Irati Jimenez eta Iratxe Esnaolak hartu dute parte, besteak beste.

EUSKAL PUNKAZ
ETA IDENTITATEAZ

TATXATUAREN AZPIKO NAZIOAZ
Ibai Atutxa
Utriusque Vasconiae, 2010
170 orrialde. 15 euro

Euskal punkari eta identitateari buruzko kontuak landu ditu Atutxak lan honetan. Hertzainaken punk musikaren bitartez, 80ko hamarkadatik gaur egun arte poliziak euskal gizartean burututako jazarpen, kontrol eta diziplina teknologiak azaltzen ditu egileak, betiere punk musika erresistentzia tresna izan dela ulertarazteko asmoz.

IZADIAREN
ERRAIETARA

HARKAITZAREN MAGALEAN
Pello Zabala
Alberdania, 2010
240 orrialde. 15 euro

Zabalaren asmoa izadiaren gramatikan sartzea da, natura behatu eta harekin bat egitearen poderioz berau ulertzen saiatzea. Oharpen horiek egunen gurpilean idatziz osatua da liburuak. 2006ko urrian hasi eta 2008ko martxoan bukatu zuen lehen liburuak. Honako hau du bigarrena, aurrekoa utzi zuen lekuan hasia.

EL RETABLO DE UNA
ÉPOCA HISTÓRICA

LA CADENA ROTA
Toti Martínez de Lezea
Erein, 2010
256 páginas. 19,50 euros

En Sara, durante la Revolución francesa y en medio de la incertidumbre de la guerra entre el Estado francés y el español, del exilio obligado de sacerdotes y contrarrevolucionarios, Joanto Iturbide, nieto bastardo de Gehexan de Jaurenea, a quien su abuelo rechazó tras su nacimiento, busca sus raíces y, también, la venganza.